

# Metroan

*Itziar Uriarte*

Europako kapitalak gorroto ditudala argi dago. Ez dakit zergatik jarraitzen dudan horiek bisitatzen. Kriston hotza egiten du, jendez gainezka daude, jendea serioa eta ixila da... Baita nerabeak ere! Begiratu horiek. Mugikorrean sartuta, ez dio batak besteari begiratzen eta, gehien jota, irriño txiki bat oparitzen diote begira dagoenari, bideo edo mezu batek grazia egin diolako.

Nik, haien adina nuela, oihuka ibiltzen nintzen lagunekin batera inguruko guztiek jakin zezaten zein ondo ari ginen pasatzen, zein bizirik geunden...

Metroan noa. Aireportura bidean. Behingoz amaitu dira opor madarikatu hauek. Zein aspergarriak izan diren. Ohar-mentala: EZ bidaiatu bakarrik inoiz gehiago! Ez behintzat, lagunak egitea ezinezkoa den leku batera. Beno, dena den, hau amaitzear dago, eta ordu gutxi batzuen buruan etxean egongo naiz, eta nire sare sozialak hiri "eder" honen argazkiz beteta egongo dira.

Argazkiei buruz ari naizela, hortzak zuritu beharko nituzke... Selfietan horiegi ateratzen zaizkit.

Ai ama! Gero eta jende gehiago dago bagoi honetan. Gehienak mugikorrari begira doaz. Aurrean dudanak atzo parranda ona botako zuen, izan ere, lo seko dago eta listua aho-ertzetik erortzen hasi zaio. Nazka zein barregura sortarazten dit. Alboan emakume edadeduna daukat. Zein ondo usaintzen duen eta, esna egonda, sakelakoari begira ez dagoen bakarra da. Jatorra dirudi. Irribarre egiten diot, eta irribarrea bueltatzen dit. Gero aurrera begiratzen dugu biok, berriro. Ez dugu hitzik trukutzen, altxatu eta *bye* labur baten ostean, metroko ate automatikoak gurutzatu, eta jendearen artean desagertzen, galtzen denera arte.

Nire adina izango duen neska bat eseri da orain. Inguruari behatzen dio, nire antzera, eta ez du pantailarik jarri bere aurpegiaren aurrean. Aldiz, motxilatik liburu bat atera eta irakurtzeari ekin dio.

Bost geltoki baino ez dira geratzen aireportura ailegatzeko eta bagoia, orain bai, jendez gainezka dago. Motxiladun mutil gazte bat nire aurrean jarri da, zutik. Hankekin nire maleta niregana hurbildu du. Hankak ireki, eta belauen artean kokatzen dut, molestatu ez diezaion. Nire ezkerreko belauak alboko neskarena ukitu du, begiratu nau, urduritzen hasi naiz. *Sorry* apal bat baino ez zait atera, eta begirada berriro aurrera gidatu nahi dudanean, nire sudurrak mutilaren motxilaren kontra jo du. Barrezka hasi naiz, ezin eutsirik, eta nire barrea alboko neskarenarekin nahastu da.

Ingurukoek begiratu egin gaituzte, guk elkarri begiratu diogu. Eta, bat-batean, nire barre-algarak eten egin dira. Bere belauen kontra dudana belaua laztantzen ari zait. Begietara begiratu diot. Inguruan dagoen guztia desagertu egin da. Bakarrik gu gaude. Sutan. Esku dardartiaren hatz-mamiekin eskumuturra laztandu diot eskura ailegatu arte. Gure eskuak lotu egin dira, eta gure beroak nahastu. Haren gainean jarriko nitzateke, lepoa musukatu, titiak estutu, baina badakit ezinezkoa dela. Horrela dirudien arren, ez gaude bakarrik. Begirada batekin, hitzik gabe, zer eta nola egingo dugun adostu dugu. Bakoitzak bere motxila magalean jarri du. Eta izterrak laztantzen ditugu, barne-barnetik ere bai. Ezin eutsirik gabiltza. Bata bestearen praketako botoiak eta kremaierak ireki ditugu. Sabelaren amaiera goxokiro ferekatu diot ile ahul batzuk aurkitu arte. Horiek bidea erakutsi didate, nahiz eta begiak aspaldi itxi ditudan. Bere klitoria maitatu dut, berak nirea goxarazi duen bitartean. Laster etorriko naiz...

Txirrina jotzen ari dira. Zer demontre? Begiak ireki ditut. Nire ohean nago, eta eskua hankartean. Azkar batean altxatu naiz. Entzuten ari naizena telefonoa da.

— Bai? Esan?

— Ainhoa Arroniz andrea?

— Bai. Ni naiz. — *Zer demontre nahi duzu?* nere barnerako.

— Zure Aste Santuko bidaia, Covid-19a dela-eta, bertan behera geratu denez gero, hurrengo eskaintza luzatu nahiko nizuke...

Kaka zaharra!!

Gauero bidaiatzen dut nik orain, emakume. Eta metrorik lizunena bisitatu dut gaurkoan.